## ARRASATEKO UDALA

### Gizarte Zerbitzuak

*Neguko Aterpe zerbitzuaren Araudiari behin betiko onarpena.*

Udal Plenoak, 2010eko abenduaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen Neguko Aterpe zerbitzuaren Araudiari hasierako onespena ematea.

Aipatu Araudia jendaurrean izan ondoren (2011ko urtarrilaren 7ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako iragarkia), ez da ez alegazio zein erreklamazio idatzirik aurkeztu, hortaz, Toki Araubidearen Oinarri-Arauak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, Araudia behin betikoz onartu dela ulertzen da.

Hori guztia ikusirik, 7/1985 Legeko 70.2. artikuluan xedatutakoa betetzeko, behin betikoz onartutako Neguko Aterpe zerbitzuaren Araudiaren testu osoa argitaratzen da.

Arrasate, 2011ko otsailaren 10a.—Ino Galparsoro Markaide, alkatea. (1689)

NEGUKO ATERPEAREN UDAL ARAUDIA

I. KAPITULUA

SARRERA

*1. artikulua. Helburua.*

Neguko aterpearen helburu nagusia da etxerik gabeko pertsonei neguko hilabeteetan gaua pasatu ahal izateko lekua eskaintzea, kalean lo egiteak etxerik gabeko pertsonengan sortu ahal dituen arriskurik eta kalterik ez izateko. Bestalde, neguko aterpeak etxerik gabeko pertsonei beste baliabideetarako sarrera erraztea ere izango du helburu.

*2. artikulua. Zerbitzuaren definizioa.*

Neguko aterpea eskakizun baxuko baliabidea da, hortaz, Arrasaten etxerik gabe bizi den pertsona orok izango du bertan gaua igarotzeko aukera, azaroaren 1etik martxoaren 31ra bitartean, baldin eta plazak libre badaude. Udalak zerbitzu hau eman ahal izateko lokal bat egokituko du, eta bertan 14 plaza egongo dira. Udalak aukera izango du, edozein momentutan lokalaren kokapena edota plaza kopurua aldatzeko.

II. KAPITULUA

ONURADUNAK

*3. artikulua. Onuradun zein izan daitekeen zehaztea: Baldintzak.*

a) Arrasaten etxerik gabe bizi den pertsona oro izan daiteke Neguko Aterpearen onuradun, gaixotasun fisiko zein psikikoagatik ospitalean egon behar duten pertsonak izan ezik.

b) Udalerrian erroldatuta dauden pertsonak Neguko Aterpean sartzeko lehentasuna izango badute ere, Udalerrian erroldatu gabeko pertsonak ere onuradun izan daitezke.

## AYUNTAMIENTO DE ARRASATE

### Servicios Sociales

*Aprobación definitiva del Reglamento del servicio de Albergue de Invierno.*

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 23 de diciembre de 2010 acordó aprobar inicialmente del Reglamento del servicio de Albergue de Invierno.

Sometido el citado reglamento a información pública (Anuncio publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de 7 de enero de 2011), no se ha presentado escrito ninguno de alegación o reclamación al citado documento en el plazo concedido, por lo que de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, el Reglamento se entiende definitivamente aprobado.

A la vista de lo señalado, y para dar cumplimiento a lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, se publica el texto íntegro del Reglamento del servicio de Albergue de Invierno aprobado definitivamente.

Arrasate, a 10 de febrero de 2011.—La alcaldesa, Ino Galparsoro Markaide. (1689)

REGLAMENTO MUNICIPAL DEL ALBERGUE DE INVIERNO

CAPÍTULO I

INTRODUCCIÓN

*Artículo 1.º Objeto.*

El objeto principal del albergue de invierno es ofrecer a las personas sin techo un lugar para poder pasar la noche durante los meses de invierno, a fin de evitar los riesgos y daños que puedan producirse al dormir en la calle. Por otra parte, el albergue de invierno también tendrá como objeto facilitar a las personas sin techo el acceso a otros recursos.

*Artículo 2.º Definición del servicio.*

El albergue de invierno es un recurso de baja exigencia, por lo que todas las personas que viven en Arrasate sin techo podrán pasar la noche en el albergue, entre el 1 de noviembre y el 31 de marzo, en caso de que las plazas estén libres. El Ayuntamiento adecuará un local para la prestación de este servicio, en el que habrá un total de 14 plazas. El Ayuntamiento podrá en cualquier momento modificar la ubicación del local y el número de plazas.

CAPÍTULO II

PERSONAS BENEFICIARIAS

*Artículo 3.º Definición de persona beneficiaria: Condiciones.*

a) Toda persona sin techo que viva en Arrasate puede ser beneficiaria del Albergue de Invierno, excepto aquellas personas que deban permanecer en el hospital por enfermedad física o psíquica.

b) Aunque las personas empadronadas en Arrasate tendrán prioridad de entrada en el Albergue de Invierno, también pueden ser beneficiarias las personas que no estén empadronadas en Arrasate.

*4. artikulua. Onuradunen eskubideak eta betebeharrak.* Ç

4.1. Eskubideak.

a) Neguko Aterpean egoteko eskubidea, araudi honetan egonaldia amaitzeko adierazitako arrazoiren bat agertzen ez den bitartean.

b) Neguko Aterpeko instalazioak eta erabilera komuneko objektuak, ekipamenduak eta tresnak erabiltzeko eskubidea.

c) Norberaren borondatez Neguko Aterpean egoteari uzteko eskubidea.

d) Orientaziorako eskubidea. Pertsona bakoitzaren behar zehatza ebaluatu ondoren bere egoerari gehien egokitzen zaizkion zerbitzu edo prestazioen inguruko orientazioa emango zaio.

4.2. Betebeharrak:

a) Arrasateko Udalak baimendu ez dituen pertsonei Neguko Aterpean sartzen ez uztea, erabiltzailearekin duen ahaidetasuna edo harremana edozein dela ere.

b) Bizikidetza kaltetu gabe eta gainontzeko erabiltzaileen nahiz bizilagunen sosegua hausten duen ezer egin gabe jokatzea, errespetuz, gainerakoak iraindu, mehatxatu eta eraso egin gabe.

c) Elkarrekin bizitzeko arauak bete beharko dira, garbiketari, norbere higieneari eta zerbitzuaren ordutegiei dagokienez. Lokalaren erabilera komuneko (lo egiteko eremua, komuna, korridorea, egongela) garbiketa erabiltzaile guztien artean egingo da, Gizarte Zerbitzuek adierazitako moduan.

d) Gaixorik egonez gero, botikak hartzeari eta beharrezko diren gainontzeko zainketei buruz medikuak esandakoa betetzea.

e) Nork bere seme-alaben ardura hartuko du, baldin baditu, baita norbere gauza pertsonalen ardura ere.

f) Neguko aterpean eskuragarri dituzten objektuak, ekipamenduak eta tresnak egokiro eta errespetuz erabiltzea. Eta baimenik izan gabe ez sartzea Neguko Aterpean ez altzaririk ez etxeko tresnarik. Halaber, Neguko Aterpean ezin izango da animaliarik sartu ez eta higienearen aurkako edota arriskutsua izan daitekeen materialik gorde. Armak edukitzea espresuki debekatua dago.

g) Neguko Aterpean inolako drogarik ez kontsumitzea, tabakoa eta alkohola barne.

h) Lo egiteko eremuan inolako jakirik ez sartzea.

## III. KAPITULUA

## FUNTZIONAMENDUA

*5. artikulua. Sarrera eskubidea.*

5.1. Ohiko prozedura.

Interesdunak Gizarte Zerbitzuetan Neguko Aterpean sartzeko eskaera egin ostean, Gizarte Zerbitzuetako teknikariek eskaera baloratu eta plaza libreak egonez gero, interesdunari Neguko Aterpean gaua igarotzeko baimena emango zaio, zerbitzua erabiltzeko iraupena zehaztuz, baimen hau iraungi ostean, berriz ere egin beharko da eskaera Gizarte Zerbitzuetan.

*Artículo 4.º Derechos y deberes de las personas beneficiarias*

4.1. Derechos.

a) A estar en el Albergue de Invierno, mientras no exista alguna de las razones indicadas en este reglamento para la finalización de la estancia.

b) A utilizar las instalaciones del Albergue de Invierno, objetos, equipamientos y utensilios de uso común.

c) A finalizar la estancia en el Albergue de Invierno por propia voluntad.

d) Derecho a la orientación. Tras realizarse la evaluación de las necesidades concretas de cada persona, se prestará la orientación relativa a los servicios o prestaciones que mejor se adecuen a su situación.

4.2. Deberes:

a) No permitir la entrada en el Albergue de Invierno a las personas no autorizadas por el Ayuntamiento de Arrasate, independientemente del tipo de parentesco o relación que tengan con la persona usuaria.

b) Actuar de forma tal que no se perjudique la convivencia ni se realicen actividades que rompan con el sosiego tanto de las personas usuarias como de los vecinos, con respeto, sin injuriar, amenazar y agredir al resto.

c) Deberán cumplirse las normas de convivencia, en relación con la limpieza, higiene personal y horarios del servicio. La limpieza del uso común del local (zona de dormitorios, servicios, pasillo, sala de estar) se llevará a cabo entre todas las personas usuarias, según lo indicado por los Servicios Sociales.

d) En caso de estar enfermo, cumplir con lo indicado por el médico o médica sobre la toma de medicamentos y resto de cuidados que sean precisos.

e) Se responsabilizará de sus hijos e hijas, en su caso, y, asimismo, de sus objetos personales.

f) Hacer uso de los objetos, equipamientos y utensilios que sean accesibles en el albergue de invierno de forma adecuada y con respeto. Y no introducir sin autorización en el Albergue de Invierno ni mobiliario ni enseres domésticos. Asimismo, está prohibido introducir animales en el Albergue de Invierno y guardar materiales que puedan ser antihigiénicos o bien peligrosos. Está expresamente prohibido tener armas.

g) No consumir ningún tipo de droga en el Albergue de Invierno, incluido tabaco y alcohol.

h) No introducir ningún alimento en la zona de dormitorios.

## CAPÍTULO III

## FUNCIONAMIENTO

*Artículo 5.º Derecho de entrada.*

5.1. Procedimiento ordinario

Una vez que la persona interesada haya solicitado en los Servicios Sociales el ingreso en el Albergue de Invierno, el personal técnico de los Servicios Sociales procederá a valorar la solicitud. En caso de existencia de plazas libres se concederá autorización a la persona interesada para poder pasar la noche en el Albergue de Invierno, y se concretará la duración de uso del servicio. Tras la extinción de dicha autorización nuevamente deberá ser solicitada en los Servicios Sociales.

5.2. Larrialdiko prozedura.

Udaltzaingoa kalean gaua igarotzen duten pertsonak detektatzeaz eta zerbitzu honen berri emateaz arduratuko da. Eta Gizarte Zerbitzuen arreta orduetatik kanpo aurkezten diren kasuetan, Neguko Aterpean plaza libreak egonez gero, Udaltzaingoa arduratuko da interesdunei bertan gaua igarotzeko baimena emateaz.

*6. artikulua. Ordutegia eta egutegia.*

Zerbitzua azaroaren 1etik martxoaren 31ra arte egongo da zabalik, 19:00etatik 9:00etara bitartean. Aterpea zabaltzeaz Udaltzaingoa arduratuko da egunero eta ixteaz, berriz, Gizarte Ongizate Saileko hezitzailea, larunbat, igande eta jaiegunetan izan ezik, egun hauetan Udaltzaingoaren ardura izango da aterpea ixtea.

Eguneko tenperatura 3.ºC azpikoa izan behar duela iragarrita dagoenean, aterpea egun osoan egongo da zabalik. Gizarte Zerbitzuen Sailak erabakiko du egun bakoitzean zerbitzua zein egoeretan dagoen, horretarako, erakunde ofizialek emandako iragarpenean oinarrituz (euskalmet.net edo/eta aemet.es), eta erabaki honen berri, Udaltzaingoari emango zaio.

## IV. KAPITULUA

## ESKAINTZEN DIREN ZERBITZUAK

*7. artikulua. Eskaintzen diren zerbitzuak.*

a) Informazio eta harrera zerbitzua.

Gizarte Zerbitzuetako teknikariek erabiltzaileei haien eskubideen eta betebeharren berri emango die. Eta baita momentuan bizi duten egoera sozio-pertsonala hobetzera bideratzeko beharrezko informazioa eta aholkuak ere.

b) Garbitasun zerbitzua. Dutxa eta garbigailua.

Neguko Aterpearen erabiltzaileen gutxieneko garbitasun baldintzak ahalbidetzea du helburu zerbitzu honek. Horretarako, erabiltzaileek bertan dagoen dutxa erabiltzeko aukera izango dute. Eta, oheko arropak eta norbere arropak garbitzeko garbigailua erabili ahal izango dute.

c) Norbere gauzendako armairuak.

Erabiltzaile bakoitzak norbere gauza pertsonalak gordetzeko armairu bat izango du. Neguko Aterpea erabiltzeari utzi eta armairuan gauzak uzten badituzte, astebetez gordeko zaizkie, denbora hori iraganda, gauzak bazter utzitzat joko dira, eta hortaz, Udalak erabili ahal izango ditu egoki iritzitako moduan.

d) Gosari zerbitzua.

## V. KAPITULUA

## EGONALDIA ETETEA EDOTA BUKATUTZAT JOTZEA

*8. artikulua. Egonaldia aldi baterako etetea.*

Gizarte Ongizateko teknikarien edota Udaltzainen erabakiz, aldez aurretik interesatuari entzunaldia eskainita, egonaldia aldi baterako eten ahal izango da, honako kasuetan:

a) Arau-hauste arinak. Egonaldia 3 gauez etengo da.

5.2. Procedimiento de emergencia.

La Policía Municipal se encargará de detectar personas que pasan la noche en la calle y de informar sobre la existencia de este servicio. Y en los casos que se presenten fuera del horario de atención de los Servicios Sociales, si hay plazas libres en el Albergue de Invierno, la Policía Municipal se encargará de dar a las personas interesadas la oportuna autorización para pasar la noche en el albergue.

*Artículo 6.º Horario y calendario.*

El servicio estará abierto desde el 1 de noviembre hasta el 31 de marzo, entre las 19:00 horas y 9:00 horas. La Policía Municipal se encargará diariamente de la apertura del albergue, y del cierre, sin embargo, se encargará la educadora del área de Bienestar Social, excepto sábados, domingos y días festivos, ya que en estas fechas la Policía Municipal será la que se encargue del cierre del albergue.

Cuando se anuncie que la temperatura del día estará por debajo de 3.ºC, el albergue estará abierto durante todo el día. El área de Servicios Sociales decidirá sobre el estado del servicio durante cada día, basándose en la previsión del tiempo realizada por los organismos oficiales (euskalmet.net o bien aemet.es), y dará cuenta de esta decisión a la Policía Municipal.

## CAPÍTULO IV

## SERVICIOS QUE SE PRESTAN

*Artículo 7.º Servicios que se prestan.*

a) Servicio de información y de recepción.

El personal técnico de Servicios Sociales informará a las personas usuarias de sus derechos y deberes. Y asimismo prestarán la información y el asesoramiento necesario para orientarles y mejorar su situación socio-personal actual.

b) Servicio de limpiezan e higiene. Ducha y lavadora.

Este servicio tiene como objeto posibilitar las condiciones mínimas de limpieza e higiene de las personas usuarias del Albergue de Invierno. Para ello, podrán hacer uso de la ducha existente en el albergue. Asimismo, podrán utilizar la lavadora para la limpieza de las ropas de cama y personales.

c) Armarios para objetos personales.

Cada persona usuaria dispondrá de un armario para la guarda de sus tenencias personales. Si tras dejar de utilizar el Albergue de Invierno dejan algún objeto en el armario, se guardará durante una semana, y transcurrido dicho tiempo, los objetos serán considerados abandonados, y por consiguiente, el Ayuntamiento podrá hacer uso de los mismos en la forma que lo considere oportuno.

d) Servicio de desayuno.

## CAPÍTULO V

## SUSPENSIÓN DE LA ESTANCIA O BIEN CONSIDERARLA FINALIZADA

*Artículo 8.º Suspensión temporal de la estancia.*

Por decisión del personal técnico de Bienestar Social o bien de la Policía Municipal, previamente dando audiencia a las personas interesadas, podrá suspenderse la estancia con carácter temporal en los siguientes casos:

a) Infracciones leves. La estancia será suspendida durante 3 noches.

— Errespetu falta, irainak edota tonu erasotzailea erabiltzeagatik Gizarte Zerbitzuetako teknikariekin, Udaltzaingoarekin edota gainontzeko erabiltzaileekin.

— Neguko Aterpeko ekipamenduak, objektuak edota tresnak nahita modu txarrean erabiltzea.

— Lokalaren garbiketa lanetan dagozkion egitekoak ez burutzea.

— Neguko Aterpean drogak kontsumitzea, tabakoa eta alkohola barne.

— Zerbitzuaren ordutegiak ez errespetatzea.

— Lo egiteko eremuan jakiak, altzariak, etxeko tresnak, animaliak edota debekatuta dauden beste zenbait gauza sartzea.

— Gaixorik egonez gero, botikak hartzeari eta beharrezko diren gainontzeko zainketei buruz medikuak esandakoa ez betetzea.

b) Arau-hauste larriak. Egonaldia 7 gauez etengo da.

— Neguko aterpean dauden langile edota erabiltzaileei hitzez mehatxatzea edota erasotzen saiatzea.

— Nahita Neguko Aterpeko ekipamendu, objektu edota tresnak apurtzea.

— Neguko aterpean, Arrasateko Udalak baimendu ez dituen pertsonei sartzen uztea.

— Bigarren arau-hauste arina egitea.

*9. artikulua. Egonaldia bukatutzat jotzea.*

Gizarte Ongizateko teknikarien edota udaltzainen erabakiz, aldez aurretik interesatuari entzunaldia eskainita, egonaldia bukatutzat jo ahal izango da, honako kasuetan:

a) Arau-hauste oso larriak. Egonaldia bukatutzat emango da denboraldi osorako.

— Neguko aterpean dauden langile edota erabiltzaileei fisikoki erasotzea.

— Neguko aterpean dauden langile edota erabiltzaileei arma edota arma moduan erabili daitezkeen tresnekin mehatxatzea.

— Bigarren arau-hauste larria egitea.

b) Erabiltzaile batek Neguko Aterpera joateari uzten badio, aurretik jakinarazi gabe, egonaldia bukatutzat joko da.

— Por falta de respeto, por insultos o bien por uso de tonos agresivos con el personal técnico de Servicios Sociales, con la policía municipal o bien resto de personas usuarias.

— Mal uso intencionado de los equipamientos, objetos o bien utensilios del Albergue de Invierno.

— No realizar las tareas correspondientes a los trabajos de limpieza del local.

— Consumo de drogas en el Albergue de Invierno, incluido tabaco y alcohol.

— No respetar los horarios del servicio.

— Introducir en la zona de dormitorios alimentos, mobiliario, utensilios domésticos, animales u otros objetos que estén prohibidos.

— En caso de estar enfermo, incumplimiento de lo indicado por el o la médica sobre la toma de medicamentos y resto de cuidados que sean precisos.

b) Infracciones graves. La estancia será suspendida durante 7 noches.

— Amenazar verbalmente o tratar de agredir al personal o personas usuarias que se encuentren en el albergue de invierno.

— Romper intencionadamente el equipamiento, objetos o utensilios del Albergue de Invierno.

— Dejar entrar en el Albergue de Invierno a personas no autorizadas por el Ayuntamiento de Arrasate.

— Realizar una segunda infracción leve.

*Artículo 9.º Consideración de finalización de estancia.*

Por decisión del personal técnico de Bienestar Social o bien de la Policía Municipal, previamente dando audiencia a las personas interesadas, podrá darse por finalizada la estancia, en los siguientes casos:

a) Infracciones muy graves. Se dará por finalizada la estancia para toda la temporada.

— Agredir físicamente al personal o personas usuarias que se encuentren en el albergue de invierno.

— Amenazar al personal o personas usuarias que se encuentren en el albergue de invierno con un arma o con aparatos que puedan utilizarse como arma.

— Realizar una segunda infracción grave.

b) Si una persona usuaria deja de asistir al Albergue de Invierno, sin previo aviso, la estancia se considerará finalizada.